

AITA

**SAN FRANCISCO ASISCOAREN**

**BEDERATZIURRENA,**

**gaztelaniatic cusquerara**

bere seme batec itzulia.

Bear diran baimenacquin.

---

ES PROPIEDAD.

---

**TOLOSAN:**

Pedro Gurruchaga-ren moldizteguiari

1879-garren urtean.



M-17756

R-36911

SARRERA.

ATV

21615

Aiñ gauza jaquiña da, maiz eta arretarequin santuen birtuteen ispillu ederrari beguiratzea, guberac imitatzera eramateco bideric egoquien etaco bat dala, non ez dagoen eguiartzuzeco pruebaren bearric. Guizonen biotzac ungui ezagutzen dituen Jangoicoac, bere erria ondueracitzeco, Abraham eta Sararengana bialtzen ditu santidade eta birtutezeco molde batzuetara becela. Beguira, esaten die Isaias Igarlearen aotic (G. 2.), ceñ arrobitic ebaquiac eta ceñ iturburutic irtenac ceraten. Ipiñi itzatzutezuen beguiac Abraham zuen.

aita eta Sara zuen ama-gan.

Au onela izanic, ¿ce frutu gozoac gugan emango ez ditu, jayotzatic eriotzaraño Cristo gurutziltzatuaren iduri bicia izan zan santua ispillutzat artzeac? Gogora etorrico citzatzun onez-  
quero, iracurle ona, S. Francisco Asiscoa esan nai dedala. Deritzat onec cerutic dirauscula S. Pablo Apostoluc beste dem-bora batean Corintotarrai bece-  
*la: Imitatu nazazute, nic Cristo imitatu nuen becela.* Izan zaitzte, nere maiteac, naigabeetan eramankuizun aundicoac, oracioan ernayac, nequeetan indartsuac, itzetan neurtuac, obretan modestia aundicoac, oituretan ejemplo onecoac: arroqueria gabe humillac, tristeza gabe


mortificatuac, desprecio gabe  
pobreac, espirituco libertadea  
galdu gabe garbiac, samintasun  
gabe celosoac, amorioarequin  
erruquitsuac: eta itz batean gu-  
cia esateco, izan zaitezte ni bece-  
la beste Cristo batzuec. Eguiteco  
santu onetara aculatuta eramang-  
go gaitu bederatziurren onec.

Bacarric esan bear dizut, ira-  
curle maitea, bederatziurren  
onetan deseaten dezun gracia  
irichi nai badezu, ongui eguin-  
go dezula Confesio ta Comunio  
probechuzcoen bitartez aurretic  
prestatzea. Egunero meza, al-  
badezu, entzun ezazu, eta gogoz  
edo espiritualquiró comulgatu  
fede, esperanza ta caridadezco  
acto asco eguiñaz. Gañera sa-  
yatu bear dezu oracioco incen-

sua, borondatezco mortificacio-  
cho bat lagun duela, Jangoicoa-  
ren tronura eta guizonezco Se-  
rafiñaren aldarera bialtzen: eta  
egünero meditatzen dan Santua-  
ren birtutea ejercitatzen alegui-  
ña eguiñ. Onela eguiten badezu,  
ez dudarie iduqui, logratuco de-  
zu Jaungoicoagandic Santuaren  
bitartez, deseatzun dezun mese-  
dea, zure animaren oneraco ba-  
da.

Oracio bacoitzaren ondoren  
arquituco da Santuaren icasbi-  
de bat, egunez meditacio gaya  
izan dedin.

Zure oracioetan gogoan noi-  
cean bein iduqui ezazu, zure ani-  
maren oneraco bederatziurren  
au eusquerara gaztelaniatic itzu-  
li duen peccataria.



## EGUNEROCO

### ACTO CONTRICIOZCOA.

---

**N**ere Jesucristo Jauna, Jangoi-  
co ta guizon eguiazcoa; zu cera-  
laco ontasun azquengabea da-  
mu det biotz gucitic zu ofendi-  
tua eta artzen det asmo sendoa  
zure graciarequin batean berriz  
pecatura biurtu baño lenago bi-  
cia galtzeco. Ezagutzen ditut,  
nere Jesus maite maitegarria,  
zure odolezco llaguetan nere pe-  
catuen zauriac, eta zure gorputz  
nequez asean zu ofenditzean  
izan dedan ausardi ta atrebi-

mentua. Baña nere gaiztaque-  
rien aunditasunagatic, cerura  
nere beguiac alchatzeco diña  
ez banaiz ere, beguira zayezu  
Francisco zure serbitzariaren  
mercedimentuai eta oecgatic e-  
man zadazu nere esquergabeta-  
sunagatic mereci ezdedan bar-  
cacioa.

ORACIOA.

Eta zu, Francisco santu mi-  
ragarria eta munduco Salbatza-  
llearen iduri bicia, zure birtute  
goi ta Jaunac zure gorputzean  
ezarri cituen llagacgatic izan  
zaite bitarteco nere Jangoieo  
eta aitaren aurrean, eta logratu  
zadazu artu eta iduqui nazala  
bere gracion, gloriaco zorionta-  
suna irichi artean. Amen.



LENDABICICO EGUNA.

*Humildadea.*

Beguirá nola Francisco mai-  
su jaquintsua becela sayatu zan  
bere birtuteen cimendutzat hu-  
mildadea ipintzen, bere anima-  
ren eche espiritualá eroricorra  
izan etzediñ. Orregatic bere iri-  
tzian zan, ez bacarric cristau  
gucien artean chiqui eta beene-  
coa, baita ere peccatarien artean  
aundiena: bere utseguite ezc-  
tucocac azaltzen cituen, eta ezc-  
tatu bere biotzaren barrunean  
Jaunagandic cetorzquion gra-  
ciac: charqueriac alabanzac ba-  
ño bere buruagatic aditu naya-  
go cituen: ordenaco buru edo  
Generalizatea errenunciatu edo  
utzi zuen: Sacerdoteen mallara

beñere igo nai izan etzuen: gu-  
cien oñpean cegoenean, berari  
cegoquion lecuan arquitzen za-  
la, iduritzen citzayon. Eta, nola  
Jangoicoac beeratzen dituen ar-  
roac eta ematen dien gracia hu-  
millai, beragatic Francisco ere  
lurreco autstartetic atera eta be-  
re errico aguintarien artean ipi-  
ñi zuen. Emendic icasi bear det  
nic ere, aundia izan nai badet  
Jancoicoaren beguietan, ece-  
reztat nere burua iduquitzen,  
gogora ecartzen dedala argalta-  
sunarequin beeratu eta nasten  
duela sendotasun eta aundius-  
tea, eta ecer ezdanaren bidez  
ondatzen duela ichuraz aundia  
dana, guciac ezagutu dezaten  
berari bacarric zor zayola glo-  
ria. Orregatic, dio Evangelio

santuan, humillatzen dana, al-  
chatua izango dala.

Meditatu beza orain bacoitzac piſca-  
bat esan diran gaucen gañean: eguin  
bizayo santuari escaria, eta, obeto lo-  
gratzeco bederatziurren onetan desea-  
tzen dan gracia, esan bitez bere lla-  
guen onran bost *Aita gure* eta bost  
*Ave Maria Gloria Patri* batequin.

### ORACIOA.

¡Oh Francisco humilla! ¡oh  
Cristoren humildadearen ispillu  
arguia! Jaunaren aurrean bil-  
dur santuz beteric gau osoac iga-  
rotzen cinducena esanaz: ¿Nor  
cera zu, nere Jauna, eta nor naiz  
ni? logra zadazu ceruco Erre-  
gueagandic Jangoicoaren eta  
nere buruaren ezagüera eguiaz-  
co bat, Jaun onegatic humillatu  
eta gucien mendean bici nadin

Ongui ezagutzen det, santu mi-  
ragarria, orain arte jangoicozco  
filosofia au aztuta egon naizala.  
Jangoicoac onra aundian ipiñi  
ninduen; baña nere zoraqueria-  
gatic berdindu naiz lau oñecoac-  
quin eta beren antzecoa eguiñ  
naiz. ¡ Oh ceñ eroa izan naizan!  
¿Zugandic artu ez dedanic, cer-  
det nic, nere Jaun eta Jangoi-  
coa? Eta zuc emana badet gucia  
¿cergatic nere banu becela ar-  
rotzen naiz? Nere ichutasunaz  
erruquitu zaite ¡oh aita chit hu-  
milla! eta zure merecimentu mi-  
ragarriacgatic aguertu beguit  
Jaunac munduco jaquintsuen-  
tzatezcutatua dagoena, nere ece-  
reztasuna ezaguturic, arquite  
dezadan humildadeco joya ba-  
liotsua, eta eguiñic chiquiguizo-

nacgatic chiqui eguiñ eta erio-  
tzaraño humillatu zanaren amo-  
rioagatic, ceruetaco erreñuan  
sarrera izan dezadan. Amen.

Bucatuco da bederatziurren onen  
azquenean arkitzen diran antifona ta  
bersoacquin.

**Icashidea.**

Aimbat da bacoitza, cembat  
dan Jangoicoaren beguietan eta  
ez gueyago.

**BIGARREN EGUNA.**

*Mortificacioa.*

Beguirá nola Jangoico guru-  
tziltzatuaren jarraitzalle aundi  
Franciscoc gurutzea laztandu  
zuen, eta bere gorputza aiñ go-  
gortasun aundiarequin castiga-  
tu zuen, non oztá ematen cion  
bicia ez galtzeco bear zuena.

Gueyenean bere janaria ciran  
gau ta egun isurtzen cituen ne-  
gar malcoac: bere oya lur utsa  
eta bere burcoa arri gogor bat:  
jantziaren biguntasunari cion  
gañera gorroto santu bat; itz ba-  
tean gucia esateco, gorputzari  
beti etsai gogor bati becela be-  
guiratu cion eta aiñ erruqui gu-  
chi iduqui cion; non iltzeco ce-  
goela aiñ gogor tratatu zuelaco  
barcacioa escatu cion. Orrega-  
tic, aita S. Buenaventurac dion  
becela, bere griñac Cristore-  
quin gurutziltzatuac ceuden, ala-  
co moduan ece, bere mingaña  
gurutzearen gloria predicatzen  
bacarric empleatzen zan, bere  
gustoac bacarric atseguña ar-  
quitzen zuen Cristo gurutziltza-  
tuagan, ceñaren iduri edo ima-

grina beti gogoan cerabilen ; Oh  
eta ceñ contrara eguin izan de-  
dan nie! Gorputzaren errega-  
loan ezpada ez det pensatu, eta  
onequin ez det berari espiritua  
menderatzeco armac ematea bai-  
cic eguiñ. Oi arroa, jan ugari ta  
gozoa, jantzi biguna, beguiac  
eta sentidu guciac empleatu di-  
tut nere animaren caltean. Baña,  
oraiñ ezagutzen dedan ezquero  
iduqui dedan ichutasuna, nai  
det nere utseguiteac gatic negar  
eguiñ, gurutziltza tu nere ara-  
guia eta menderatu nere grina  
oquer guciac: cergatic ezagu-  
tzen det mundu onetaco penac  
ez dirala ecer gueroco gloriare-  
quin berdintzeco.

Meditatu beza etc., lendabicico egu-  
nean becela.

ORACIOA.

Patriarca chit mortificatua,  
Jesus gurutziltzatuaren estam-  
pa bicia: ;oh nie zure ejemploa-  
requin icasico banu nere grina  
gaiztoac garaitzen, barauacquin  
nere gorputza castigatzen eta  
moduren batean espiritu biur-  
tzen, espirituaren mendeän beti  
iduquitzen dedala, nola Jesu-  
cristoren iduria beregan impri-  
mituco litzaquean eta nola izan-  
go litzaquean zurea becela, Ai-  
ta beticoaren arguitasuna eta  
bere izatearen iduria danaren  
antzecoa!... Irichi zadazu bada  
gracia zure mortificacioa imita-  
tzeco, zuc Cristorena imitatu  
cenduen becela eta nere anima-  
ren barrunean Jesusen mortifi-



cacioa estampatua erabiltzeco,  
izan dedin oroipen au nere oitu-  
ra char eta grina oquerren on-  
doren joatea galerazoco didan  
frenua; modu onetan nere gogo-  
rario ta eguquera gucietan Je-  
sus gurutziltzatua imitatu deza-  
dan. ¡Oh Francisco! sellatu eza-  
zu nere becoquian zure senten-  
cia miragarri au: *Bicitza oneta-  
co atseguina laburra da, beticoa  
pena: padecitza dembora guchi-  
coa, gloria azquengabea: nere  
gorputza Cristoren mortificacioz  
inguratua erabilli dezadan, eta,  
nigan iduri bici batean becela,  
Jaun onen bicitza azaldu dedin.  
Ill nadilla ni, baña nere bicia  
Cristo Jangoicoagan ezcutatua  
dagoela, bicitza eguiazcoa dan  
Cristo aguertzen danean, ni ere*

azaldu nadiñ berarequin glorian. Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egunean becela.

**Icshidea.**

Aiñ aundia da espera dedan zorientasuna, non gaitzetan atseguñ artzen dedan.

**IRUGARREN EGUNA.**

*Pobreza.*

Beguir nola Franciscoc, icusiric alde batetic Jangoicoaren semea izan zala guciz pobreza zalea, eta bestetic bere demboran mundutic birtute au erbestetua cegoela, Cristoren jarraitzalle eguiazcoac becela, ceucan gucia pobreen artean zabaldu zuen. Pobreza izateco ceu-

can gogoa aín aundia zan, non  
S. Buenaventurac dion becela,  
iñorc ez duen urrea aimeste  
maite izan nola Franciscoc po-  
breza; iñorc ez duen ondasunac  
gordetzen aimeste arreta ipiñi  
nola Franciscoc margarita ba-  
lioso au zaitzen. Negar malcoac  
beguetatic ceriozcala, adimen-  
tuan astartzen zuen maiz Jesu-  
sen pobreza, emendic ezagutzen  
zuela Erregueen Erreguea eta  
bere Ama Erreguiña birtute one-  
tan aimeste distiatu ciran ez-  
quero, berac izan bear zuela bir-  
tute gucien erreguiña. Beraga-  
tic nai izan zuen pobreza izan  
cedilla bere familiaren escutar-  
ma, eta cimendu sendo onenga-  
ñean atsedan cezala bere orde-  
na miragarriac. ¿Nola nago ba-

da, ni lurreco ondasunacquin aĩn  
choratua, oec irudi utsa eta ece-  
reza baicic ez izanic? Guizona  
Jesucristori jarraitzeko descati-  
batzen duen espirituco pobreza  
maitatu bear det nic ere; bada  
onec, S. Franciscoc berac dion  
becela, *eguiten gaituela mundu-  
co gaucen beartsu, birtutez abe-  
rastu eta ceruetaco erreĩnuaren  
eredero eguiten gaitu.*

Meditatuco da etc., lendabico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

¡Oh pobreen Patriarca! ¡oh  
Cristoren imitatzalle eguiazcoa,  
pobrezaren edertasunaz lillura-  
turic eta gure amorioagatic gu-  
rutzean larrugorrian egon zan  
ceruco Maisuari obeto jarrai-

tzeagatic, soñean cenducan jantzia utzitzerañoco batasun sendoarequin berarequin esposatu ciñana! alcanza zadazu Jangoico gucia dezaqueanagandic ez dezadala nic aberastutzeco de seoric iduqui deabruaren tentacio eta lazoan erortzen naizala, eta birtutezco ondasun ugariac ceruraco inguratzeco moduan, lurreco aberastasunac utzi ditzadala. Indazu arren ez nadilla ni lotsatu Cristoc, bere amac eta apostoluac beren ejemploacquin consagratu zuten birtuteoni jarraitzen. Eta ¿cergatic de seatuco ez det nic Jangoicoaren amorioa mereci duen prenda au? ¡Ah! Jangoicoaren semea cerutic lurrera au billatzeco asmoan jachi zan, eta arquite zuenean

emancion laztan gozo bat, lasto artean jayo eta gurutzeco oi gogorrean iltzen zala. ¿Eta nic gaitz gucien sustraya dan gauza batean empleatuco det nere amorioa? Ez, nere Aita serafindarra. Eracutsi zadazu zuc nola utzi bear dedan aberastasun eta ondasun igarocorren deseoa; izanic espirituz pobre eguiazcoa, alcanza dezadan ceruetaco erreiñua. Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egunean becela.

### **Icasbidea.**

Pobreza da evangelioco gordairu edo tesoro ezcutatua, ceñagatic saldu bear duen guizonac daucan gucia eta despreciatu ecin saldu duena.

LAUGARREN EGUNA.

*Castidadea.*

Beguiranola Jangoicoac Francisco bere iduria izateco autua ceucalaco, gozotasunezco bendicioacquin aurtasunetic prestatu zuen lasaiquerien batequin manchatu eta Babiloniaco garren bicitasunarequin erre etzedin. Lotucion Jangoicoac guerraria garbitasunezco guerricoarequin eta ceruco armadurarequin jantzi zuen araguiac espirituari eguiten dion guerran garaitzalle atera cediñ. Baña ala ere, ezagutzen zuen santuac, castidadea dala lurrezco ontzi ausicor batean gordetaco ondasun precio-ric ez duena eta orregatic garbitasunaren zai ernai cegoen. Cas-

figatzen zuen bere gorputza eta  
espirituaren legue justuen men-  
dean ipintzen zuen. ¡Ce barauac!  
¡Ce azoteac! ¡Ce neque probe-  
chuscoac! Modu onetan araguia-  
ren eraso indartsu, portitz eta  
oquerrac garaitzen cituen, eta  
ain garbitasunaundia iduquitze-  
ra allegatu zannon, dion S. Bue-  
naventurac, araguia obeditzen  
cion espirituari eta espirituac  
Jangoicoari, biac batasun estu  
batean bici cirala. Orregatic pa-  
quezco Aguintariaren bicitoqui  
atseguina izan zan bere anima,  
eta bere gorputzeco miembroac  
Espiritu Santuaren templo ego-  
quia. ¿Nola nic ejemplo au ez  
det imitatu? ¿Nola joan izan  
naiz bear ezdan amorioaren on-  
doren, azturic ceruco atseguin.



garbiac gozatzeco eguiña dala  
nere biotza? Ah cembat bider ez  
naute choratu araguiaren atse-  
guiñ ciquiñac! ¡Ah! ceruco espi-  
rituen garbitasuna aleguiñean  
deseatzen zuen Francisco imi-  
tatu banu, beste moduzcoa izan-  
go nintzan oraiñ!

Meditatuco da etc. lendabico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

Patriarca chit garbia, birgini-  
dadeco azucena usai gozocoa,  
preciogabeco joya au gordetzea-  
gatic, cere burua larrugorrian  
oraiñ arantza punta zorrotzen  
artera, guero elur eta izotz arte-  
ra eta beste batzuetan icatz ira-  
cequien gañera botatzen cen-  
duena, eta zure gorputz eta ani-

maco garbitasun miragarriagatic, anima Jangoicoaren eseritotiquia izatea eta gorputzean, paper zuri batean becela Jangoicoguzion eguiñac gure erredencio-co ezagugarri edo señaleac estampatzea mereci izan cenduen; erregutzen dizut, aita chit maitegarria, Jangoicoarequin aiñ adisquidetasun aundia eracarrizun garbitasun orregatic, alcanza zadazula cerutic lurrera ni zorionecoa eguiteco jachizun birtute balioso au. Egui-zu Birgiñen Erregueac bere benedicioaren ceruco intzarequin nere zañetan dagoan sua itzali dezala, animan eta gorputzean izan nadiñ garbia. Ez dedillanere biotzean bear ez dan moduco suric piztu, ceren gauza

justua dan Jangoicoaren bicito-  
quitzat señalatua dagoen echea,  
santa izatea. Azquenic mereci  
dehadala nic izatea nere garbi-  
tasunagatic Aingueruen anaya  
eta Jangoicoaren tronua, au glo-  
rian beti alabatzen egoteco.  
Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egu-  
nean becela.

**Icashidea.**

Aiñ gauza gaitza da guizonac  
emacumeacquin asco tratatzen  
dutela, gogoracio gaiztoen ar-  
riñcutic alde eguitea, nola brasa  
iracequien gañean ibilli ta oñac  
ez erretzea.

**BOSTGARREN EGUNA.**

*Erruquia.*

Begaira nola erruqui eguia!

eoac oso bete zuen Francisco-  
ren biotza eta bere munetaraño  
igaro zan alaco moduan non di-  
rudien bere eguiguera gucien  
jabe eguin zala, S. Buenaventu-  
rac dion becela. Eta eguiaz, bir-  
tute onen gozotasunac ama amo-  
rioz eta onguinaiz betericaco bat  
eguiñ zuen Francisco. Pobreac  
eta gaiñoac icustean urtzen zan  
bere biotza, eta eguiaz eciñ la-  
gundu bacion, laguntzeco go-  
goa eta negar malcoac eracusten  
ciezten. Pobre ta gaiño bacoit-  
zean iduritzen citzayon icusten  
zuela graciaren ondasunacquin  
gu aberasteagatic pobre eta gu-  
re pecatuen zauriac sendatzeco  
gaiño eguin zan Cristo; orrega-  
tic berari falta eguiten cioten  
gauzac ematen baciozcaten eta

jaquin pobreac premian ceude-  
la, bereala oen artean zabaltzen  
cituen. Mantua, tunica, liburuac,  
gucia utzitzen zuen ayen pre-  
miac erremediatzeagatic. Itz ba-  
tean esateco, bere burua emate-  
co prest arquitzen zan carida-  
de eguiazcoaren languitea bete-  
tzeagatic. ¡Ce lotsa au neretzat,  
bada ez diet premian dauden  
anayai casoric eguiten! ¡Oh nere  
biotz diamantea baño gogorra-  
goa! ¿nola azqueneco tantotara-  
ño gucientzat Jangoicoaren se-  
meac išuri zuen odol indartsuac  
etzaitu biguntzen? Ea, nai diot  
Franciscori jarraitu lagun pro-  
jimuarenganaco erruquian; ba-  
da asieran gaiñoac bisitatzeac  
nazcatzen banau ere, guero gor-  
putz eta animaraco gauza atse-

guiña eguingo zat, aita serafin-  
darrariguertatu citzayon becela.

Meditatuco da etc. lendabicico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

¡Oh Francisco guciz erru-  
quitsua, ceruco Samaritanoaren  
iduri bicia, premian ceudenai la-  
guntzeco misericordiazco ardoa  
eta caridadezco olioa empleatu  
cinducena! alcanza zadazu ne-  
re lagun projimo guciac (baita  
etsayac ere) anayac becela laz-  
tantzeco gracia; bada gucioc  
guera Jangoicoaren semeac, be-  
re semearen odolarequin erosiac  
eta gloria batean izateco eguiñac.  
¡Oh pobreen aita eguiazcoa! Zu-  
re erraiac ayentzat zabal za-  
bal idiQUIAC ceuden ; eta nereac  
ichiac egongo dira beren deyac

ez aditzeco? Zuc iduqui nai cin-  
ducen milla beso ta escu gai-  
soen onean empleatzeco ; eta nic  
ez det nere escua luzatzen bada  
ere jaquingo berai laguntzeco?  
Ez dedilla onela guertatu, nere  
aita [onguillea; ezpada birtute  
onen edertasunaren amorioz be-  
teric, arca ta biotza idiqui ditza-  
dala gogoz eta obraz pobre, gai-  
so ta premian dagoenari lagun-  
tzeco, beartsuetan Jesucristori  
jaten eta edaten ematen diedala,  
bere Aitac bedeincatu nazan,  
eta contua eman bearco deda-  
nean, bere aotic sententia zorio-  
necoa aditu dezadan, ceruetan  
gozatzen egoteco. Amen.

Bucatuco da etc. lendabicico egu-  
nean becela.

**leasbidea.**

Jangoicoaren amorioagatic limosna eguitea da zabaltze probechu aundicoa, ceren Jangoicoaren amorioaren precioa baccarric asco dan ceruetaco erreiñua irišteco.

**SEIGARREN EGUNA.**

*Celoa.*

Beguiria nola animen salbacioaren celoac, susco ezpata zorrotz eta iracequi batec becela zulatu zuen Franciscoren barrungucia alaco moduan non zan amatzalle celoso baten iduria. Beragatic, Arcume mancha gabearen odolarequin erositaco animac pecatuen batean cutsutzen cecusanian, naigabez bete-



ric, ama maite baten guisa, ber-  
riro Jesucristorentzat sortzeco  
moduco debociozco amorioare-  
quin negar eguiten zuen. Be-  
rotasunean Eliasen erederoac,  
Evangeliocono leguea predicatzen  
zuen Jangoicoaren espiritu ta  
birtutearen ezagugarri aiñ ar-  
guiac ematen cituela, ece bere  
itzac, S. Buenaventurac dion be-  
cela, ciran biotzen ondoraño sar-  
tzen ciran oñaztarriac, eta da-  
nic gogorrenac izan arren, cari-  
dade ta amoriozco arguizai bi-  
gun biurtzen cituen. Martirioa-  
ren gogoz beteric, iru aldiz Si-  
riaraco embarcatu zan eta nai-  
gabe, cate, azote eta eciñ conta-  
tu al nequeren ondoren, Egip-  
toco Soldanaren aurrean Jesus  
alabatu zuen eta Aguintari onec,

leoi asarre bat bazan ere, Jan-  
goicoaren birtutez arcume man-  
so eguiñic, atseguin aundiare-  
quin aditu zuen. ¡Oh nic sellatu  
al banitzaque nere odolarequin  
fedeco eguiac! ¡Oh nic aldatu al  
banezaque nere zañetara Fran-  
ciscoren su chit iracequia!... Ba-  
ña, ay! nere bicimodua obea izan  
da nere anayaipecatu eraguite-  
co, mandamentuen bideari jar-  
raitueracitzeco baño. Emendic  
aurrera ordea nere utseguitea-  
gatic negar eguingo det eta sa-  
yatuco naiz projimoai ejemplo  
ona ematen, nere obrac izan di-  
tecen oitura charren illuntasune-  
tan arquitzen diranen guidariac.

Meditatuco da etc, lendabicico egu-  
nean becela.

ORACIOA.

Francisco chit celosoa, ceruco Erreguearen pregolaria, beste Bautista batec becela, lurreco aguintarien aurrean argui eguiazcoaren testimonioa eman cenduena eta beste Elias bat becela, urruti ceuden icasleac biñitatzera susco gurdi batean eramana izan ciñana, eta zure anayen oneraco al cenduen gucia eguiten cenduena; erregutzen dizut, Aita guciz maitagarria, Salbatzalleagandic alcanza zadazula bere amorioagatic ill eta bicia emateco gogo iracequi bat, edo beintzat nere anayai pecaturaco bidea emanaz bera ofenditu baño, milla bider illtzeco gracia. Bai, ill nadilla ni, Evange-

lioac aitatzen dituen chiquicho  
inocente bati pecaturaco bidea  
eman baño len. ¡Oh nere Aita  
maitearen su celosoa, gar artu-  
co bacendu nere biotzean! Zure  
bitartez irichi dezadala nic Jesu-  
cristorenadisquidetasuna eta ne-  
re amorioagatic išuri zuen odo-  
laren frutua artzera allegatu na-  
dilla. Ezagutu dezala munduac  
ni ere Jangoicoaren dicipulua  
naizala eta bere banderapean  
peleatzen dedala, ceren nere  
anayac maite ditudan eta beren  
salbacioa deseaten dedan. Ala  
espera det, Francisco, zure es-  
cubideari beguiraturic; modu  
onetan, barcatuaz nere etsayai,  
Jesucristoc barcatu cien becela  
eta estimatu eta eguiñaz nere  
anayai al dedan on gucia, artu

dezadan Juez justuaren escuetatic justiciazco coroya betico glorian. Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egunean becela.

### **Icashidea.**

Gauza gucien gañean billatu bear da animen salbacioa, bada beracgatic egon zan gurutzean josia Jangoicoaren semea.

### ZAZPIGARREN EGUNA.

#### *Caridadea.*

Beguir nola caridadeac Francisco Jangoicoarequin alcartu zuen alaco moduan, non berarequin espiritu bat izatera allegatu zan. Gucia cirudien, dio S. Buenaventurac, chingar bici bat. Orregatic bere aurrean Jan-

goicoaren amorioa aitatzen zanean, sutzen zan bere biotza, uquitu eta zauritzen cioten dardo iracequi batzuec botatzen baciozcaten becela, bere gorpuzaren chulome gucietatic sugarrac irtetzen ciola. Nun nai billatzen zuen bere maitea eta criatura guciac ciran beretzat escalera eder bat becela, ceñaren malletatic igotzen zan azquengabe maitegarria dana gozotasun aundiarequin laztantzera. Oreña zaurituaren guisa corritzen zuen Jangoicotasunaren ichaso ondo gabeco uren iturri-  
ra, eta putzu azquenic ez duen onetan murguildua egon arren, bere egarria eciñ aseric, Davidequin deadar eguiten zuen:  
«¡Oh ceñ maitegarriac diran,

Jauna, zure biciteguiac! Nere anima suspirioz eta desmayoz betea dago zure echean egoteco deseoren aunditasunez... » ¡Oh nere Jangoicoa! ceñ epela, edo obeto esateco, izotztua dagoen nere biotza! ¿Nola izan diteque Franciscogan icusten dedan suac ni ez piztu eta iracequitzea Jangoicoaren amorioan? ¡Ah nere errucarria! ¡Cembat bider Criatzallearengana igotzen malla batzuec becela lagundu bear cidaten criaturac, ez didate bidetic alde eraguñerazo eta bota pecatuco leice zuloan! ¡Oh Francisco amorioz betea! lotsatzen naiz nere biotzeco amorioa aiñ gaizqui empleatu dedalaco: alcanza zadazu, bada, zure biotzean cegoen suaren piñca bat,

arranoa becela egaturic, lurre-  
tic cerura igo nadin. Amen.

Meditatu beza etc. lendabico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

¡Oh Patriarca iracequia! bi-  
ciac iraun cizun dembora gu-  
cian, aurreneco arreta eta cui-  
dado gucia ipiñi cenduena icas-  
ten aundi ta chiqui, jaquintsu eta  
ez jaquintsuegandic nola gueya-  
go ta gueyago zure maitearequin  
bat eguingo ciñan, izaten zala  
au, S. Buenaventurac dion be-  
cela, zure filosofia gucia; alcan-  
za zadazu justiciazco Eguzquia-  
gandic, zaurituaz bere ciar-  
guiacquin oraiñ arte otz eta ge-  
latua egon dan nere biotza, piz-  
tu dezala beñere itzalico ez dan



gar sagradu batec, onen bitartez  
maitatu dezadan nere Jaun eta  
Jangoicoa nere anima, gogo ta  
indar guciacquin, baita ere nere  
gorputzac chingarrac bota di-  
tzan bere miembro gucietatic.  
¡Oh gustatu eta ezagutzen asico  
banintz ceñ gauza gozoa dan  
Jangoicoa, nola samiñac izango  
liraquean neretzat lurreco atse-  
guiñ guciac! ¡Nola nazcatu eta  
aspertuco ninduqueten mundu-  
co gusto circillac! ¡Nola beti ce-  
rugo atseguiñ gozoetan ipiñia  
iduquico nuquean nere biotza!...  
¡Oh Francisco!... Jangoicoa aiñ  
laztanquiro maitatu cenduená,  
eguiñ ezazu Salbatzallearen fin-  
tasun arrigarriai esquer charra-  
requin erantzun diedalaco, nere  
biotza negarrez urtu dedilla. Al-

canza zadazu amorioz gaiñotu  
eta nere anima caridadezco he-  
ridacquin zauritua gueratzeco  
gracia, iracequiric Jesucristo  
gure Jaunac lurrera ecarri zuen  
su artan, logratu dezadan segu-  
rantza ez nauela criatura ba-  
tec ere apartatuko Jangoicoaren  
amoriotic, ceña deseaten dedan  
beti laztantzea glorian. Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egu-  
nean becela.

### **Icashidea.**

¡Nere Jangoicoa eta nere gau-  
za guciac!!!

## ZORTZIGARREN EGUNA.

### *Oracioa.*

Beguiria nola oracioac bere-  
quin dacarzquielaco bicitza cris-

tauco laguntza ta garaipen gu-  
ciac, Franciscoc eguiteco santu  
onetan aleguñ gucia eguin zuen;  
oracio eguiten zuen guelditu ga-  
be, modu onetan beti gogoan  
ceucala Jangoicoa espirituan.  
Adimentua ocupaturic bere mai-  
tean eta choraturic becela ceru-  
co distiaduretan, etzuen senti-  
tzen, S. Buenaventurac dionez,  
inguratzen zuten lecu, dembora  
eta personen desberdintasuna.  
Jaquiñic gañera Espiritu San-  
tua bacardade zalea dala animai  
itzeguiteco, irteten zuen gabaz  
campora, suspirio iracequiz be-  
tetzen zuen airea, negar mal-  
coacquin bustitzen zuen lurra,  
egoten zan gueldi ta iñillic, be-  
re gañ alchatzen zala. Jangoi-  
coarengana bacarric zucentzen

cituen bere gogoracio guciac  
eta bere aunditasunaren medi-  
tacioan aimesteraño piztutzen  
zan bere amorioaren sua, non ci-  
rudien Serafin iracequi bat. Or-  
regatic, anima astuntzen duen  
gorputz ustelcorraren pišuric  
iduqui ez balu becela, alchatzen  
zan, batzuetan aritzic altuena  
baño gorago, eta beste ascotan  
egá eguiñic ceruronz, aimeste  
igotzen zan non bištaric azcar-  
renac urric eciñ eman ceiquion.  
Eta contemplacioaren bitartez  
argui azquengabearena urrera-  
turic ;ce ugaritasunarequin be-  
re distiaduretatic edango zuen!  
;nola comunicatuco citzayon ani-  
ma santa oni jaquinduria beti-  
coa! ;Ah nere erotasuna! Neca-  
tu naiz liburuetan jaquinduria-

ren billa eta neque ascoren ondoren illumpean guelditu naiz, ceren Job santuac dion becela Jangoicoaren bildurrean bacar-ric dagoen jaquinduria eguiaz-coa eta pecatutic alde eguitean ezagüera benetacoa.

Meditatu beza etc. lendabico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

Patriarca iracequia, beti oracioan ceundena, eta zure animan, ispillu batean becela, Jaunaren gloriaco arguitasunac artuaz, bere iduri biurtu ciñana; erregutzen dizut alcanza zaza zula Jesucristo gure Jaunagandic, ceñac utzi cigun oracioan bera billatu eta berarequin bat eguiteco bide seguru, labor eta

gozoa, igues eguin dezadala munduco Egipto illunetic, arguizco columna au guidari dedala, eta nere adisquidetasuna Jangoicoarequin bacarric izan dedilla alaco moduan non esan dezaquedan Esposa santaren confianzarequin: *Nere Maitea neretzat eta nere Maitearentzat ni*. Bai, nere Patroi maitea, sartu nazazu gaurdanic zure escuz Jaunaren bicitoqui argui ederretan; bada an icasico det munduco jaquinduria Jangoicoaren beguietan zoraqueria dala, eta beragatic zayatuco naiz iristen jaquinduria obeagoa, ceña dan Cristo gurutziltzatua. ¡Ah zorigaiztocoa ni, beste gauza guciac jaquiñ arren, Jangoicoa ezagutzen ez badet! Baña doatsua ta

zorionecoa izango naiz au eza-  
gutzen badet, beste gauzaric ez-  
badaquit ere. Eguizu bada, nere  
aita ona, Jangoicoac eman de-  
guidala bere ezagüera goi bat  
ezaguturic glorificatu dezadan  
nere Jangoicoa becela, eman  
daizquiodan amorioarequin es-  
querrac eta nere pensamentue-  
tan arrotu ez nadin. Indazu gra-  
cia nere belarriac idiquiric, Jan-  
goicoac bialtzen dizquidan ins-  
piracio santuac aditzeco, eran-  
tzun dizayen; era onetan garai-  
tuaz nere grña oquerrac, eta  
oñac busti gabe igaroric mun-  
duco ichasoa, artu dezadan sa-  
ria glorian. Amen.

Bucatuco da etc. lendabico egu-  
nean becela.

**Icasbidea.**

Guizonac beste gauza guciac  
baño gueyago deseatu bear du  
oraciocò gracia; bada au gabe  
eciñ iñor aurreratuco da Jan-  
goicoaren serbicioan.

**BEDERATZIGARREN EGUNA.**

*Llaguen ezartze edo imprimitzea.*

Beguir a nola Patriarca sera-  
findarrac, bere eriotza baño ur-  
te biz lenago, alde eguñic Al-  
verniaco mendira espirituco so-  
segu gueyagorequin an jardute-  
co Cristoren pasioaren contem-  
placio gozo ta atsegunezcoan,  
sentitu zuen goiz batean bere  
anima gozotasun eta atseguiñez-  
co ichaso batean igaricebillela.  
Eta ceruronz beguiac alchatu-



ric, jachitzen icusi zuen airea  
urratuaz, Serafin moduco bat  
sei ega iracequi, argui ta eder-  
racquin. Urreratu citzayonean,  
icusi zuen Santuac ega artean  
Cristo gurutziltzatua, ceñaren  
bištac, alde batetic, poz aundia  
eman bacion ere, cecusalaco Je-  
sus arpegui alayarequin eta Jan-  
goicozco arguitasunen artean;  
bestetic zan beretzat pena aun-  
di eta izugarria icusten zuelaco  
gurutze batean oñ eta escueta-  
tic josia. Alcarren artean iduqui  
oituzten izqueta cutun misterio-  
soen ondoren, ezcutaturic icus-  
quera, guelditu zan Francisco-  
ren biotza amoriozco carobi bat  
eguiñic, eta guero aguertu ci-  
tzaizcan esca, oñ eta alboan  
Cristo gurutziltzatuagan icusi

cituen ilagac. Onequiñ osatu  
zan guizonezco Serafiñ onetan  
munduco Salbatzallearen idu-  
ria. Francisco jachi zan mendi-  
tic berequin cecarrela, S. Bue-  
naventurac dion becela, guru-  
tziltzatuaren, estampa, *ez arri-  
edo egurrezco oletan guizonaren  
escuac equiña, ezpada Jangoico  
biciaren beatzac esribitu ta equi-  
ña.* ¡Ah nic emendie icasico ba-  
nu Cristo gurutziltzatua nere  
biotzean imprimitzen eta nere  
pechuan otallatu edo esculpi-  
tzen ez altzairu puntacquin, ez-  
pada amoriozco suarequin! ¡Oh  
nic Jesucristo gure Jaunaren  
gurutzea beste gloriaric billatu-  
co ez banu! Baña ¡ay ceñ des-  
berdiña izan dan nere bicimo-  
dua, bada gurutze orren beror-

ren etsaya izan naiz eta ez det  
nere griña oquerrac beste Jan-  
goicoric ezagutu! Baña ez da  
onela izango emendie aurrera;  
damu det gaizqui portatu naiza-  
laco; gogoan maiz erabillico det  
Jaunaren pasioa, nigandie igues  
eguin dezaten aingueru gaiz-  
toac; eta urreraturie Salbatza-  
llearen iturrietara Franciscoe-  
nen bitartez, ateraco det atse-  
guñ aundiarequin bicitzaco ura.  
Amen.

Meditatu beza etc. lendabicico egu-  
nean becela.

### ORACIOA.

¡Oh Patriarca chit santua, gu-  
re erredencioco ezagugarri odo-  
lezcoacquin sellatua, beste Cris-  
to bat eguñ cinduzten amorioz-

eo garrac zure llaguetatic bota-  
tzen dituzuna! alcanza zadazu  
ceruco Emalleagandic, eguiñic  
Jangoicoaren Semearen antze-  
coa birtute guciai jarraituaz, dis-  
tiatu dezan nere animan Salba-  
tzalleac zure gorputz santuan  
ezarri zuen iduria. ¡Oh nere bio-  
tzari uquituco balio burutic oñe-  
taraño zugan gar eguiten zuen  
caridadezco suaren chingar ba-  
tec, chingar onetan iracequiric,  
nere obrac izan dezaten berota-  
sun eta bicitza! ¡Oh amoriozco  
iturriac! ¡Oh llaga perla ta ar-  
ri baliotsuac baño estimagarria-  
goac! ¡Oh guizon Jangoicotua!...  
Ongui ezagutzen det Jesusec zu-  
re gorputzean bere llagac ezar-  
ri bacituen, izan zala idiquitze-  
co ateaac irten cezaten campora.

zure animan ceuden birtutearen  
arguitasun eta distiadurac; oen  
bitartez munduac zure santida-  
dearen gar biciac icusi citzan.  
¡Ah! nere borondatea epela da-  
go, aztu zayolaco Cristoren pa-  
sioaren oroipena. Eleiza ama  
santac esaten dit zugan Jesusec  
berriñu bacituen bere pasioco  
llagac, munduan beren oroipe-  
na aztua cegoen demboran, izan  
zala gure biotzac Jangoicozco  
amorioan iracequitzeo. Baña  
¿noiz icusi izan dira llaga sagra-  
du oynec gaurco egunean baño  
aztuagoac? Izanic, bada, zu Ai-  
ta eternoac munduari eman cion  
Seme bacarraren iduri eguiaz-  
coa, guciac izan citecen bere  
guisacoac, logra dezadala nic  
zoriona, zuri birtute gucietan

jarraituaz, araco aren guisacoa izateco, ceñaren antz gabe eciñ sartu nitequean ceruetaco erreñuan. Amen.

Bucatuco da etc. lendaticico egunean becela.

### **leashidea.**

¿Cergatic negar eguiten dezu? esan cion adisquide batec. ¡Ah! jaquin ezazu negar eguiten dedala Cristoren pasio taeriotzagatic. Nere gorputzaren parte guciac, begui, ao eta mingañ biurtuco balira ere, ez liraque asco izango pena onec merceduen sentimentua azaltzeco.

BERSOAC,

---

Serafin iracequi,  
Aita Francisco,  
Logra guri gracia  
Zuri jarraitzeco.

Estrabi pobre baten  
Ciñala jayotzen,  
Jesusen antza ciñan  
Oso asi artzen.

Ceruraco bidea  
Da humildadea,  
Beti izan ciñan zu  
Andiuste gabea.

Maite cenduelaco  
Beartsu izatea

Pobreaki eñen eman  
Zuc senipartea.

Pobreza zuc semeai  
Eñen agundu  
¿Ta birtute onetan  
Norc bera berdindu?

Aita; zure semeac  
Dira chit pobreac  
Ala gauza gucien  
Dirala jabeac.

Castigatzen cenduen  
Portizqui gorputza  
Animac izan cezan  
Bere nagusitza.

Gorrotatzen eñen  
Atseguin eiquinac  
Zure biotz Jaunaren  
Neurrian eguinac.



Zure garbitasuna  
Zan aingueruzcoa  
Eta ciñan Jesusen  
Guciz gustocoa.

Amoriozco carobi  
Eguiñic biotza  
Pocic ciñen ematen  
Pobreaki laguntza.

Penitencia eguitera  
Zure suzco itzac  
Bigundu oi cituzten  
Ascoren biotzac.

Iru ordena dituzu  
Francisco fundatu  
Eleiza santuz ongui  
Dute aberastu.

Bere ilagacquin Jesusec  
Cinducen onratu  
Oyecquin bere antza

Zan zугan osatu.

Cerua nai badezu,  
Cristaua, logratu  
Francisco bear dezu  
Beti imitatu.

Agur gure biotzeco  
Aita chit maitea  
Eracutsi semeai  
Ceruco bidea.

Ceruco ondasunac  
Guretzat logratu  
Seme ta debotoac  
Ez, aita, ez aztu.

Erbeste onetatic  
Irteta danean  
Arren sartu gaitean  
Zure companian.

BESTE BERSO BATZUEC.

---

Francisco, ciñanean  
Mundura aguertu  
Jesusec bere antzera  
Cinduan formatu,  
Eta bere amorioz  
Ciñan zu llagatu.

*Francisco, gure Jesus  
Nai degu amatu.*

Jesusen antzecoric  
Iñor bada sortu  
Francisco uculluan  
Zan jayo ta aguertu,  
Gueroztic beti zuan  
Jesus imitatu.

*Francisco, gure Jesus  
Nai degu amatu.*

Gaztetaco urteac  
Munduan pasarie  
Mundu lasa onezaz  
Ongui jabeturic  
Peligro oyetatic  
Ciñan apartatu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Jesus zuc amatutzen  
Cenduan icasi  
Serafiñen bicitza  
Bertatican asi  
Oyen amorioa  
Ciñion zuc artu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Iru religioac  
Ongui fundaturic  
Fraille dicipuluac  
Zurequin arturic

Gendea convertitzen  
Ciñan zu sayatu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Pizturic biotzetan  
Jesusen fedea  
Predicatzan cenduan  
Jaunaren leguea.  
Anima ascó cinduan  
Zuc santificatu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Jesusi aguertu nairic  
Zure amorioa  
Sufritu nai cenduan  
Zuc martirioa;  
Baño zuc etzenduan  
Orişen logratu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Jesusec amorioz  
Bere bost llagacquin  
Zure escu ta oñac  
Ta bularrarequin  
Besteri ez becela  
Cizquitzun sellatu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

Jesusec ori ceucan  
Zuretzat gorderic  
Zuri bere bost llagac  
Erregalaturic  
Zure martirioa  
Or cizun cumplitu.  
*Francisco, gure Jesus*  
*Nai degu amatu.*

ANTIPHONA.

Salve Sancte Pater, patriæ  
lux, forma Minorum, virtutis  
speculum, recti via, regula mo-  
rum: carnis ab exitio duc nos  
ad regna polorum.

Ÿ. Signasti, Domine, ser-  
vum tuum Franciscum.

R. Signis redemptionis nos-  
træ.

OREMUS.

Deus qui Ecclesiam tuam  
beati Patris N. Francisci meri-  
tis fætu novæ prolis amplificas;  
tribue nobis ex ejus imitatione  
terrena despiciere, et cælestium  
donorum semper participatione  
gaudere. Per Christum Domi-  
num nostrum,



ANALYSIS

The first part of the paper  
 contains a general account  
 of the nature and extent  
 of the disease, and the  
 manner in which it is  
 communicated. It is  
 observed that the disease  
 is not contagious, and  
 that it is not attended  
 with any peculiar  
 symptoms.

OPINION

It is the opinion of the  
 author that the disease  
 is not contagious, and  
 that it is not attended  
 with any peculiar  
 symptoms. It is  
 observed that the disease  
 is not contagious, and  
 that it is not attended  
 with any peculiar  
 symptoms.